



NERBIO PERIFERIKO BAT BLOKEATZEA KIRURGIAREN OSTEKO MINA KONTROLATZEKO

Zer da nerbio-blokeoa?

- Nerbio periferikoak blokeatuz, gorputzeko atal zehatz baten sentikortasuna galarazten da, adibidez, belaunekoa, hankakoa, sorbaldakoa edo besokoa. Kirurgian eta sendaketan mina arintzeko erabiltzen da.
- Nerbio bat kirurgiaren ondoren blokeatuz gero, albo-ondorioak dituzten minerako sendagaien beharra gutxitzen da.
- Nerbio-blokeoaren efektuak iraun bitartean, kontu handia izan behar duzu. Blokeatutako ingurua gutxi sentituko duzunez, zeure burua lesioetatik babestu behar duzu. Gainera, orekan eragin eta eroriko-arriskua handitu dezake.
- Ez saiatu blokeatutako nerbioaren atala erabiltzen, efektua erabat desagertu eta ohiko egoerara itzuli arte.

Nola blokeatzen da nerbio bat?

- Oro har, anestesiolego bat (ebakuntzetan mina kontrolatzean aditua) arduratuko da nerbioa blokeatzeaz. Mugimendua, mina eta sentikortasuna kontrolatzen dituzten nerbioen inguruan anestesiko bat injektatuko du.
- Injekzio bakarrean egin dezake edo etengabe, nerbiotik gertu txertatuko den kateter (hodi mehe) baten bidez.

Noiz desagertuko da nerbio-blokeoaren efektua?

- Nerbioak blokeatzeko injekzioen efektua aldi baterako da, eta horien iraupena hainbat faktoreren arabera aldatzen da.
- Injekzio bakarra aplikatuz gero, efektuak 3 eta 36 ordu artean iraun dezake.

Zertan jarri behar dut arreta?

- Garrantzitsua da kirurgiaren ingurua inurrituta eta ahul egon daitekeela jakitea. Baliteke, blokeoaren efektua desagertu arte, min txikiagoa, presioa edo muturreko tenperaturak sentitzea.
- Saiatu inguruan kolperik ez jasaten eta ez jarri ezer horren kontra. Lesionatuz edo gehiegizko presioa egonez gero, ez duzu sentituko.
- Kontuz muturreko tenperaturekin. Ez jarri berotzeko kuxinik inguruaren gainean, lesiona baitzaitezke.
- Saihestu: objektu pisuak altxatzea, ariketa intentsua egitea, gainazal zorrotzak ukitzea, etab.

Zer egin behar dut etxera itzuli ondoren?

- Etxera itzuli ondoren, ziurrenik ez duzu blokeatutako ingurua gehiegi sentituko, ezta minik ere. Baliteke oharkabean lesionatzea. Horregatik, medikuak alta ematean adierazitako jarraibideak segitzea garrantzitsua da.
- Atsedean hartzen ari zarela, aldatu postura maiz. Hala, inguruan gehiegizko presioa jartzea saihestuko duzu.



Hanka blokeatu badizute:

- **EZ JARRI PISURIK anesthesiatutako hankaren edo oinaren gainean**, blokeatze-efektua desagertu arte. Erortzeko arrisku handiagoa daukazu. Eskatu laguntza. Ez igo eskailerarik beharrezkoa ez bada. Pauso bakoitzean oinkada bakarra eman eta ez jarri pisurik operatutako hankaren gainean.
- **Erabili makuluak, taka-taka edo bastoia, adierazi dizuten bezala**. Eskatu laguntza ohean sartzeko eta ohetik irteteko, eta bainugelara joateko. Ez saiatu makurtzen, makuluen laguntzaz zuk bakarrik gauzak mugitzeko.
- Aulki batean esertzean, **altxatu hanka eta erabili kuxinak eta burko** bigunak hura bermatzeko eta babesteko.
- Ortesirik edo ferularik ematen badizute, **jantzi adierazi dizuten bezala**. Erorikoak saihesteko lagungarria izan daiteke.

Besoa blokeatu badizute:

- Baliteke besoaren mugimendua kontrolatzeko gai ez izatea. **Erabili beso-euskarria adierazitako moduan, blokeoaren efektua desagertu arte**. Medikuek adierazi badizu besoa euskarritik atera dezakezula, eutsi beste eskuaz.
- Kontuz ibili blokeatutako besoaren gainean lo ez hartzeko.

Zer gertatuko zait efektua desagertzen denean?

Honako sentazio hauek izango dituzu nerbio-blokeoaren efektua desagertu ahala:

- Baliteke ahuleria desagertzea lehenik.
- Ondoren, baliteke ingurua inurrituta eta pisutsu sentitzea, «lo» egongo balitz bezala.
- Efektua desagertu ahala, baliteke mina sentitzen hastea. Horregatik, **hartu minaren aurkako sendagaiak blokeoaren efektua desagertu aurretik**, adierazi dizuten bezala.

Noiz deitu behar diot medikuari?

Hurrengo hauek hautematen badituzu, **joan larrialdietara edo jarri harremanetan OSAREAN: Osasun-arretarekin (tel.: 945 203 020):**

- Min etengabea, agindutako medikazioarekin arintzen ez dena.
- 38 °C-ko edo hortik gorako sukarra.
- Gorakoak edo zorabio etengabea.
- Zaurian odoljarri ugaria.
- Gehiegi konprimitzen duten bendak.
- Kolore aldaketak eskuko edo oineko hatzetan.
- Handitutako hatzak, altxatuta eduki arren.
- Desagertzen ez den ahuleria blokeatutako adarrean.